

HIZKUNTZEN OFIZIALTASUNA

1. Estatu eta hizkuntza ofiziala

<p>Egungo estatuen hizkuntz politika, beren "nazio hizkuntza" sustatzea da. Emandako prestigio eta bultzadari esker, estatuko beste hizkeren gainetik jarri da "nazio hizkuntza" izendatutako aldaera; honek, gainontzeoen bazterketa, prestigio galera, arriskua edota galera ekarriko badu ere. Gainera, zeregin inperialista eta kolonizatzaileen lagungarri izan da, lurralde horietako hizkuntza eta kulturak baztertuz.</p>
<p>Nazionalismo europarrak mundu osora zabaldu du estatuko hizkuntza, administrazio eta hezkuntza sistema bateratua izateak herrialdea batu eta indartzen duela, horrela estautaren kohesioa eta aurrerapena erraztuz. Estatu gehienek juridikoki goberanriena den hizkuntzaren garapena eta garbitasuna zaindu eta faboratu dute, besteekiko nagusitasun eta garapena lortzeko. Horregatik XX.mendean sortutako estatu askok ideia hau dute eredu.</p>
<p>Eredu derberdinak:</p> <ul style="list-style-type: none">- kolonizatzaileen hizkuntzek ia erabat ordeztu dituzte bertakoak (Australia, Z. B....)- Mendebaldeko ohiturak hartzeko bitarteko gisa (Kamerun, Gabon...)- kolonizazio prozesua berriagoa duten lekuetan, kolonizatzaileek besteetako bat ere ofizial aitortu- eredu europarra imitatu baina bertako hizkuntza batekin (Turkia, Nepal...)- bertako hizkuntza bat baina gehiago ofizial izendatu (Hegoafrika, India...) <p>Adb.:Indonesiar gehienek hizkuntza bat baina gehiago erabiltzen dute aldi berean, eta horrela hartzen dute garrantzia eskualde hizkuntzek.</p>
<p>Eskualde hizkuntzak etniaren munduaren ikuskeraren, gizartearen ezagueren egituraketaren, gizartean duen lekuaren, kulturaren eta beste hainbaten isla izateaz gain, unibertsal linguistikoen nahiz kognitiboan zientziari buruzko gai teoriko garrantzitsuak ikertzeko aukera paregabea ematen diete zientzialariei; hizkuntz unibertsalen nahiz gizakiaren bilakaera ikertzeko bide dira.</p>

2. Estatu, hizkuntza eta lurraldea

<p>Egungo estauten mugek hizkuntza komunitateak errespetatu ez izana asi ezaguna da, horrek gerra gatazka eta mugen aldakortasun ugari eragin ditu, besteak beste hizkuntz komunitate asko estatu batean baina gehiagotan banatuak daudelako:</p> <ul style="list-style-type: none">- Europa: katalana, euskara, samiera...- Erdialdeko Amerika- Afrika

3. Ofizialtasuna eta hizkuntzak

<p>1992an munduko hizkuntzen %5 baina gutxiago besterik ez ziren ofizialak.</p> <p>XIX.mende amaiera-XX.mende hasieratik Suitzak eta Irlandan bertako hizkuntzak ofizialtzat hartu zituen, eta ondoren beste herrialde askok jarraitu dute bide bera.</p> <ul style="list-style-type: none">- bertako hizkuntza guztiak ofizial: Sri Lanka, Luxenburgoko, Belgika, Hegoafrika, Paraguai, Eritrea, Nigeria...- estatu hizkuntza bat ofizial eta beste batzuk koofizial: Espainia, Danimarka, Errusia, Txina...- ofizial edo koofizial gabe hizkuntza batzuk hezkuntza eta administrazio sistemetan erabiltzen dira: Ghana, India, Papua Ginea Berria...
<p>Estatuak hizkuntza bati ofizialtasun maila emateak hizkuntza hori estatuko konstituzioan sartzen dela esan nahi du, zaindu eta sustatu egingo dela bermatzeko (Hagège, 2000). Ofizialtasunak hiztunari prestigioa ematen diolako eta hiztun horrek hizkuntzaren sustapen eta zaintzan borrokatuko duelako.</p>

4. Ofizialtasunetik bazterketara, eta tartean, tolerantzia

<p>Instituzio publikoek eta estautak bi jokabide izan ditzakete:</p> <ul style="list-style-type: none">- botere publikoek hizkuntza toleratu: BH- estatuak hizkuntza guztien ofizialtasuna aldarrikatu: Mozambike, Peru, Kolonbia, Ekuador, Mexiko... <p>Hala ere, badira hizkuntzak herrialdeetik desagertzea nahi duten estatuak: Brasil, Frantzia (bretoiera azaldu)...</p>

5. Hizkuntza ondarea babesteko legediak

<p>Samiera: Norvegia, Suedia, Finlandia, Errusia (2MG aurretik hizkuntza hegemonikoen bereganatzea – 2MG ondoren berezitasunatzat onartua izan da eta hizkuntza erabili ahal izan da hezkuntza sisteman (Errusian izan ezik)). Estatu ezberdinetako lurraldeetan hedatua egoteak ezinbesteko egiten du sami herriaren kultura eta hizkuntza zainduko dituen estatuz gaidiko koordinazioa egotea.</p> <p>6 hizkuntza Kanadan: 70ko hamarkadaz geroztik jatorrizko herriek beren hizkuntzak ikasteko eta administrazioarekiko harremanetan beren hizkuntzak erabiltzeko eskubidea aitortu da. 88tik aurrera hizkuntzak koofizial izan dira ingelesarekin eta frantsesarekin batera, diru laguntzak jasoaz eta beste probintziekiko erreferentzi puntu bilakatu.</p> <p>Maoriera: 1987an aitortu zen hizkuntza ofizialtzat Zeelanda Berrian.</p>

6. Hizkuntz ondareak babesteko ekimenak

<p>1958an EBeko hizkuntza ofizialak, EB bera osatzen zuten herrialdeetako hizkuntza ofizialean oinarrituko zela erabaki zen. 1992an Estrasburgon "Eredu urriko edo eskualde hizkuntzen Europako Gutuna" idatzi eta onartu zen. Gutun honek irakaskuntzan, komunikabideetan, kultur ekipamenduetan, eremu publikoetan eta administrazioan gutxieneko neurriak eskatzen zituen arren, 2001ean 14k sinatu eta berretsi zuten, 13k sinatu baina berretsi ez, eta 16k ez zuten sinatu. Hala ere, EBLUL erakundeak egindako kalkuluen arabera, EBko 40 milioi lagunek ofizialtzat hartu ez ziren hizkuntzak erabiltzen zituzten. P.D.: 2006ko Turingo Neguko Olinpiar Jokoetan hizkuntza ofiziala okzitaniarra izan zedin sustatu zuen erakunde honek berak.</p> <p>Afrikan 1997an erakunde desberdinen arteko 51 estatutako ordezkariak biltzarra egin zen, eta herrialde desberdinetako hizkuntza gutxituekiko ekintza plana egin zen, non gobernuko agintariekin egiazko neurriak abian jartzeko eskakizuna egiten zen. 2000an Asmarako deklarazioan Afrikako hizkuntza eta literatura sustatuko zituen neurriak hartzea erabaki zen, bertako komunikazio bitarteko gisa erabiltzeko hizkuntzak hein handi batean kolonialak zirelako.</p>

7. Hizkuntz eskubideen Deklarazio Unibertsala

<p>100 bat estautako gobernu kanpoko kideak batu ziren 1996an Bartzelonan. Oinarrituko adostasunetako bat herri eta hizkuntza guztien berdinasunaren printzipioa izan zen, non herrietako ekonomiak edo kultur berezitasunek ez zuten inongo bereizkeriarik justifikatuko.</p>
--

8. Hizkuntz ofizialtasunari buruzko zenbait gomendio

<p>Agintariekin, legegileekin eta gizarte kudeatzaileekin ahalegin handiena egin behar da hurrengo helburuak betetzeko:</p> <ul style="list-style-type: none">- hizkuntz arloko legeak egitea eta errespetatzea- gizarte antolaketan txertatzea- konstituzioan edo ordenamendu juridiko gorenean estatu mailako koofizialtasuna aitortzea- administrazio kontuetan laguntza ematea- neurri horiek kontrolatzeko erakunde bat eratzea eta sustatzea- zenbait estatutan banatuak dauden komunitateetan nazioz gaidiko erakunde bat sustatzea- jada badauden jardun eta eredu positiboak hedatzea eta zabaltzea- erakundearen artean ahaleginak koordinatzea- nazioarteko informazio erakunde bat eratzea
--